

ARRAKASTAREN ESKALERA KALE IRAKURRALDIA



2024/12/01

11:30 EAN

APEADEROKO
ESKAILERETAN



LIZEAGAKO
JOLAS-LERU
ESTALIAN





ARRAKASTAREN ESKAILERA

—Morauren kantu hitzak—

2024/12/01

HERNANI

Morauren diskoetako letrak irakurriz
eta haien kontura asmatutako jolasarekin,
Apeaderotik Txilirainoko eskaieran
ahalik eta goien iristen saiatuko gara.

ARRAKASTAREN ESKAILERAN gora goaz, ludopoesian murgilduak, gure asmoak guai direlako. Gure ekintzak eta jolasak guai direlako. Eta galderak istripuak izan daitezke, baina erantzunak, mutu geratu ezean, oinutsik korrika postarien atzetik nola, urtaro berri baterako pasaporteak dira. Kantari goaz mailaz maila.

Kantu galduen bila gabiltza, aro modernoak imajinatuz, baina denbora gurea bada ez gara enteratu. Gerra txiki bat da gure herrian eta soldaduek ezer gutxi dakite metafisikaz. Eta gu, kanta hauen hitzez? Desertoreak baino ez gara agian.

Munduari eskertu beharreko eskuzabaltasunez, super-euskalduna ez izatea da gure kondena. Gerra txiki guztietan gertatzen den bezala, egunen batean gutako bat akabatuko dute ezustean.

Halere, jarrai dezala jolasak. Gure zalantzen beldur, Galderen beldur, Plazeren beldur. Asmatuz gero, ongi. Bestela, ez dugu hondoa joko hain azkar. Beraz, berdin dio. Mundua aurrera doa. Ongi etorri mundu librerara!

Honezkero, galderen erantzunei erreparatuz, Morau ariko da pentsatzen:

Non gordeko ote da benetako jendea?
Edo agian, irri txikiz,
Ez nago erabat hila.

Memoriak hutsegiten ez badit:
8 disko eder;
Dozenaka kontzertu;
90tik gora abesti;
24 geldialdi...
Inork ezingo du egia ukatu.

Badirenez hamaika modu errudun izateko, “Arrakastaren eskailera” bihurtu dugun itxarongela bat gehiago gure zorionarentzat.

Nahiz guztiok dugun itzalen bat atzetik, laster ez da ezkutalekurik izango, laster beteko dira promesak, badugu nahikoa itxaropen leihoa zabaltzeko. Ez zaizkigu hainbeste eskailera geratzen.

Eta jolasaren emaitzak bezala, ustekabeak landatzen ditu ardorik onenak.

Dastatzeko dugun hori bera
Txilin edango duguna
Hori izango da mundu osoko
Planeta honetako
Unibertsoko
Inoizko ardorik onena.

Ardo kopa bat baino gehiago ote da utopia.

IBON ZAPIAIN LEOZ

abiatu aurretik

apecaderoan



0. Herri txiki batekoa naiz

Herri txiki batekoa naiz
eta gerra txiki bat da gure herrian
eta gerra txiki horretan
badira
badira
hil eta zauritu txikiak
hil eta zauritu ozenak
hil eta zauritu isilak
begira
begira

Gerra txiki guztietan gertatu ohi den bezala
gerra txiki guztietan ohitura den moduan

Eta zikina da oso
ene herriko gerra txikia
eta gerra txiki horretan
badira
badira
legezko ankerkeria
legezko bortizkeria
legezko biktimak
begira
begira

Morau

(1996)



1.1. Amodio istorioa

Kontrola nazazu katxea nazazu
konfiskatu iezadazu nire kostoa
bigila nazazu zaindu nazazu
erregistra ezazu nire gorputza

Zurekin maitemindu naiz zer egingo diogu bada
zu zara nire bihotzeko zipaio laztana

Atxilotu nazazu itaundu nazazu
torturatu nazazu soilik pixka bat
[.....]
zapalduidazu botekin bota beltzekin nire burua

Asko gustatzen zait ohean gaudela
nire eskubideak irakurtzea
izugarri maite dut peloteroarekin
bete-beteen tiro egitea

1.2. Guk mundua aldatuko dugu

Ni guai naiz
nire lagunak guai dira
nire lagunak ez direnak
horiek ez dira inolaz ere guai

Guai bizitzen gara
guai drogatzen gara
sartzen ditugu rayitak ere dira guai

Bla bla bla bla bla bla

Ni eta zu gara guai
eta guai izatea da guai
guai ez direnak inbidiaz
nahi luketelako izan guai

Guai janzten gara
guai jaten dugu
ikusten ditugun filmak ere
dira guai

Gure asmoak dira guai
gure ekimenak dira guai
besteen ekimenak ordea
horiek ez dira inolaz ere guai

Guai bizitzen gara
guai drogatzen gara
egiten ditugun tertuliak ere
dira guai

1.3. Maiatzaren Lehenean

Nork daki non izango zaren hau idazterakoan
pobreen patua jakin badakizu
nire osaba batek hiru auto ditu eta langilea dela dio

Koka-kola lata bat
Koka-kola lata bat baino gehiago ote da utopia

Hala ere pobreak maitemintzen gara bankuen pozerako
plastikozko eraztunak bi aste Benidormen
enpresariak putetxeak betetzen dituzte Maiatzaren Lehenean

Nork daki zertan ibiliko zaren etorkinen kluba
ekonomiaren alde erromantikoa
jostailuz beteta daude eskaparateak giza jostailuak

Kantu galduak

(1998)



2.1. Aro modernoak

Taberna eta trenak zenbatu eta gero
ordu asko dira esna egonez gero

Aro modernoak

Goizero ez baitira kaleak jaikitzen
lantegi atarietan atsoak errezatzen

Aro modernoak

Langabetuen kartak eskapareteetan
esperantza edaten baso herdoilduetan

Ordu asko dira honetan ibiltzeko
gerra hasi ote da korrika hasteko

Aro modernoak

Laburra da hemen kaleen aurpegia
[.....]

Aro modernoak

2.2. Ez gaituzte harritzen

Hirian hasi, hirian bukatu
lastozko zubiak imajinatu
farola baten azpian biok gara bizi
oin arinak eta itxaroten nagusi

Denbora gurea bada ez gara enteratu
garaiak ezin du disimulatu

Txakur txiki baten aho zorrotzean
ezin esna gabiltza kaleen oroitzean
egutegi hautsiak goizaren janari
zu eta ni gara orain iratzarri

Hirian hasi, hirian bukatu
zertarako bada urrutiratu
batera edo bestera sirenak asmatzen
sasoi hauek ere ez gaituzte harritzen

2.3. Milagros

Soldaduak agerian trintxeretako lore azpitan
eta sukaldean Milagrosek inora begiratu ez baitaki nora

Kaleak izarak dira non lokartu euripean
lokatz gerizpeak asmatuz soldaduentzat
Milagros leiho baten bila altxatu da
limoiak eta eztandak larru betean

Ezer gutxi gauaz bestalde
lagunak hilotzak garraiatzen goizalderaino ez dakite nora

Soldaduen birikak heriotzaz mintzatzen
bazterretan miatzeko eskutitzak
Milagros malkotan hasi da
zuhaitz beltz bat jaio zaio bularrean

Berdin isilik daude limoiak eta eztandak.

Amodio domestikoa

(2000)



3.1. Hip-hop

Nola gogoz kontrako pobreak begiraten duen kontu korrontean
hola biltzen gara denak hipermerkatuen atari jendetsuetan
beti jendetsuetan
ea nork dakien zenbatean kotizatzen duen errukiak azoketan
errudunak garelako argi dago tokatu zaigun zigorra
tokatu zaigun zigorra

Dena sal guztia erosi bizpahiru kondenatarako gaude bertan
hitz egidazu gozo diruaz eta beste benetako sentimentuez
benetakoez
kamtaizkidazu iragarkiak parkingetan buruz errpikatuko ditugu leloak
salneurri zerrenda luzea da bizitza erosle izateko sortuak gara
zatoz eman eskua paseatuko dugu dendetan zehar
maita gaitezen epeka zorionarekin beti zorretan
kutxazainak tiro egin zion bati aurea hartzeagatik ilaran
armaz josita ibiltzen baikara beherapenetan
behera behera beherapenetan

Okupa ugari topatu dute Hiper-eroskietan
urteak ziren bertan bizi zirela zaindari guztiei iheska
jan
lo
erosi
kaka egin
aukeran bizitza bertan

munduari eskertu beharreko eskuzabaltasuna
hipermerkatuan biziko gara
munduari eskertu beharreko eskuzabaltasuna
txeke txuri baten antzera
munduari eskertu beharreko eskuzabaltasuna
mugarik gabeko erosketak
munduari eskertu beharreko eskuzabaltasuna
akabo betirako pobrezia
munduari eskertu beharreko eskuzabaltasuna
[.....]

3.2. Super-euskalduna

Sukaldari ona behar du izan ondo menperatu lapikoak
apustu-zale tratalari bikain asetu guztian sabelak
hirurehun kiloko harria altxatu astaproto samarra beraz
hitz bakarra eta hori sekula jaten ez duenetakoa

morrontzarako aproposa behar du umil eta langilea
inork ez dituelako maite euskaldun alprojak
eta hori guztia aski ez bada zintzo eta egi-zale behar
elizkoi ondradu kantu-zale mozkor izatea da bere kondena

non da euskaldun ezin hobea?
zeu zara euskaldun perfektua?
hori al da super-euskalduna?
super-euskalduna

tripazorro isil bihotz onekoa primitibo engaina-erraza
etxekeen nagusi kanpoken morroi zerbitzari oso leiala
laster museora eramango gaituzte hain gara maitagarriak
kobazuletako hondakin paleolitikoekin batera

Txukalda

(2004)



4.1. Maitea

Edozein unetan, edozein etxetan, edonor alboan
edozein ataritan, espaloi bustitan, jendeak itota
edozein grina bildu, maleta bete isiltasun jakin
edozein gose, edozein autobus edozein geltoki

Han gara gu atzerritar

Edozein etorbide, begirada ezkutu, edozein bakardade
edozein euritek zorrozten dituen labanen dirdiran
edozein pobrezia, pauso askoren uzta, atzerri hezeren bat
iheslari gogo, trenbide argitsu, zelai izoztuak

Han gara gu atzerritar
maitea

Edozein telefono
edozein irribarre
edozein leiho
edozein taberna
edozein argi
edozein lozorro
edozein zeru
edozein lorategi
edozein aitzakia

Han gara gu...

4.2. Gure zorientasuna

Lore ustela da gure zorientasuna
guda-zelai erdiko espejismo itsua
basamortu errea da gure zorientasuna
hiltegi kiratsa duen esparru perfektua

Azalkeria mordoia
ate itxia
gezur ozena
eredu ustela

Ispilu ankerra da gure zorientasuna
zalantzarik gabeko eremu hila
larrutik ordaindua da gure zorientasuna
epeka ordaindutako errugabetasuna

Gure zorientasuna

Kalamidadiak

(2008)



5.1. Gizon Jakintsua

Hemen dago, etorri da
Gizon Jakintsua ezjakinei mundua azaltzera
Hemen dago, heldu da
Itsuak sendatu eta begiak zabaltzera.

Haren aho zabalean
Kabitzen dira munduko egia guztiak
Haren ahoaren berotan
Egosten dira munduko arrazoi guztiak.
Ta zera dio
Ta zera dio
Adi guztiok
Adi guztiok
E, M'ongolo, ekarri azkar afaria!!

Hemen dago, etorri da
Gizon Jakintsua tribuak zibilizatzen
Hemen dago, heldu da
Etnizismoaren miseriak agerian uztera
Eskuzabaltasun osoz
Barkatuko ditu gure bekatu guztiak
Nekaezin eta tinko
Jardungo du euskaldun tonto guztientzat

Ta zera dio
Ta zera dio
Adi guztiok
Adi guztiok
E, M'ongolo, hor al dituzu paperak!!

Gizon Jakintsua (munduko tiporik kultuena)
Gizon Jakintsua (konstituzionalista sutsua)
Gizon Jakintsua (hizkuntza baztertaileen aurka)
Gizon Jakintsua (askatasunaren lider argia)

5.2. Autobide ertzean

Ez daukat etxerik
Ez arbasoen lurrik
Ez belardi gozorik
Ezta aldapako pikurik
Ezta urrutiko mendirik
Edo baserri eder zuri zuririk

Horregatik
Nire aitaren autoa defendituko dut
Sikateriaren kontra
Lukurreroen kontra
Defenditu egingen dut nire aitaren autoa

Altzairuzko baratzeak
Porlanaren aberrian
Autobide ertzea
Da egun nire etxea
Ta kamioi batek hil zuen
Herenegun gure aita zena

Horregatik
Nire aitaren autoa defendituko dut
Legearen kontra
otsoen kontra
Defenditu egingen dut nire aitaren autoa

5.3. Ongi etorri

Nahi adina erosteko eskubidea
Hilotzak zenbatzeko askatasuna
Babes polizialaren bermea
Soldaduak zaindari denda ataritan

Turiston menpe dago mundu zabala
hortxe da gerra zure atarian

Ongi etorri mundu libreria
Mundu libre elkarte anonimora
Mundu libre anonimora

Berdintasunaren bazter auzoetan
Isiltasunaren esklabuak
Zenbat gastatu hainbat balio
Miseria da zorionik merkeena

Irabaziak bakarrik dira gutarrak
Arrotzak dira beste guztiak

Izu globalizatuaren onurak
Harresiaren alde egokian
Inon borrororik ez izateko
Nolatan dago hainbeste biktima

Ongizatearen itsas ertzetan
Aberasten dira borreroak

Arrainentzako himnoak

(2014)



6.1. Begiak nahi duena

Emakume beltz bat bizikletan autoen artean
ordu en ilara luzean
maitasun kantu inutilak meteoritoak hondatzen
guardasol bat darama haizeak
hemen ez da lekurik inorentzat lau taxilarik
emakume garbitzaile andana autobusa noiz etorri

Guztia dago pixka bat agerian

Emakume beltz bat motel trafiko erdian
arrasto umilagorik
nonbait bizi dira ikusezinak
ba al dute egoitza sekreturik
maitasuna darie hiru atsoei sirenak sumatzearekin
gure onerako dela diote
pantailan beren buruei adi

Emakume beltz bat lanera doa bizikletan
etorbideak ez du amaierarik
apustu egin dute bi isilpeko poliziek
baietz jo sakelakoak niri
Eguzkipeko ordu hauetan
denak gara susmagarri
eguzkiak ez du argitaratzen
begiak ikusi nahi ez duenik

6.2. Hondarribia

Festa eguna da igandea ziurrenik
zeru gehiegi dagoen egun bat
puta esan dio 10 urteko neskatoak
eskopetarekin doan emakumeari
ama kezkatua dago
haurrak ez duen igandeko soinekoa zikinduko izozkiarekin

ez atera plastiko beltzetik
bihotza hautsiko dizute
ez atera plastiko beltzetik
mundua hozka ari da hemen

festa eguna da festa normala ziurrenik
errudun gehiegi dituen egun bat
ernegatua dago uniforme beltzeko andrea
kasko gorria jantzita dagoen beroarekin
lanerako hain gogo gutxi
berak ez luke parte hartuko ezta gizonezkoa balitz

festa eguna da Leire eta lagunentzat
harresi beltz honek alde bakarra dauka
ez dira neska txarrak ez diote kalterik opa inori
oihuka ari dira kale bazterretik
beranduago txalotuko dute
beraiek bakarrik dakiten mutil hori

6.3. Itsaso puska bat

Itsaso puska bat agertzen da aldiro autopista zubi azpian
ijitoek uzten dute gauean han izan dira lanean
eta barreiatu dituzte milaka urtetako fosilak
eta zabaldu dute arrain ustelen usaina
kresala ekarri dute eskuekin jasotakoa

Horregatik autopista zubi azpian behe lainoak gatza dauka
olatuen talka usaindu daitekeela aipatzen du jendeak
hondoa jotako baporeen hezurak ikus daitezkeela
eta begiak itxiz gero baita bertako biztanleak
anemonak olagarroak

Ijitoek ekartzen duten itsasoa puskari esker
albatrosek kabi egiten dute porlanezko amildegietan
eta maria gorarekin baleak datoz Urumean barrena
koartelaren eta kartzelaren itzal gaiztoetatik gora
haien kantuekin lokartzen gara

Zer dakite ijitoek hondartzan ebatsi duten itsaso ale horretaz
ba al dakite adibidez zenbat aldiz jo ote duen norbaiten ate alboan
Ba al dakite honenbestez indarrez ekarri duten itsaso apur horrek
[.....] esnatu egiten duela gurean ozeanoa

Egunsentiak alperrentzat

(2016)



7.1. Alzheimer

Memoriak gainezka egin dit
ez dut gogoratzen zure urtebetetze eguna
harrigarria da beti izan baitut gogoan
orain ez nago ziur
non den gure etxea noiz egiten duen hotza
zer kantu entzuteko babestu behar den bihotza

igerilariak basamortuan
hondoa jotzeko labarren bila
inongo zerutan galtzen dira
aingura guztiek huts egin ostean

ez ditut gogoan
maitatzen ditudan fruten izenak
ezin ezberdindu beldurra eta tripakomina
ahazten ari zaizkit
hitz esdrujuloak barkamena eskatzeko erak
maitatu ahal izateko konbentzio denak

eta laster ezingo ditut leherketen soinuak bereizi
bonbak
etxafuegoak
tiroak
petardoa
eta azkenean denbora desagertu egingo da
igerilariak bezala

7.2. Gasteizen, azkeneraino

Bi aldiz galdu diagu autobusa bigarrena jarraian
uste diat Parraleko somontanoa dela horren erruduna
ordura arte Errioxako urtekoarekin ari gintuan
oraintxe ospa egin dizue ez eskatu orduari gupida

beherantz aitzogile kalean ezker aldera hartuta
inspirazioaren bila aritzeko hau kale paregabea
ardo onak piztu egiten dik nahigabe talentua
eta hirurehun litro talentu bazegok apal horietan

eta nork atera dik orain ondua proba egiteko hoan
beste bat eska ezak lehenbailehen etxea egingo diagu hemen
ados baina otordurako berriro hartuko diagu urtekoa
ez larritu Gasteizen oraindik ez dituk hasiko bazkaltzen

eta non bazkalduko diagu gaur dena lepo zegok
ardo hau ez al da ba nahiko arrazoi bertan probaren bat egiteko
Villabuenakoa al da hi bai moko-fina
hortik ekartzen zian osabak bikainak zeudek haragi-bolak

ez gaituk iritsiko Hala-bedira aprobeitza ezak aulkia
kafea ardoa eta pattarra berriro bat eginda
zer ordutan duk autobusa euria ari dik goitik behera
bai noski gaur oso garaiz iritsi behar diagu etxera

behin Gasteizera etorri
eta bertatik ezin irten
ezin berriro itzuli
ez baziguk joaten uzten

7.3. Mina

Goizero galdetzen diot ea zer den oinazea
eta gauza berri bat erantzuten dit
ez nekien hainbeste min kabi zitekeenik
gorputz bakarrean

Munduko min guztiekin zerrenda bat egingo dut
gero buruz ikasteko
beldurrari tarterik inola ere ez uzteko
morfinarik ez hartzeko

Gerta daitezkeen gaitz guztiak idatziko ditut
min bakoitzari toki aproposa emateko
izutu beharrean haiekin ohitzen hasteko
bidean adore apurrik ez galtzeko

Kalteak aurreikusteko
alde aurretik prest egoteko
zureak ere izendatzeko
eta tamaina hartzen hasteko

Arnastea baita gaixotasunik iraunkorrena
utzi beti min pixka bat biharko

Ardo
(2022)



8.1. Aitaren fortuna

Gure aita zenak Savin botila bat gorde zuen luzaro
altxor baten jabe zela zioen hainbat urte eta gero
hautsak jan zuen armairuko edaritegian
licor 43 eta whisky Dyck kondarren artean

Ez esan hari botilako ardoa aspaldi galdua zela
sommelierren infernu beltzena mereziko lukeela
botila horrek ez zuela inon ezer ere balio
lilurari salneurri egokia nork jarriko dio

Horregatik ez dugu botako eta ezin dugu ireki
ameskeria ardo ozpindutan kontserbatzen da hobeki
hautsak azalduko du aitaren gogoaren adina
botila batean zenbat amets kabitzen ote dira

Berrogei urteko ardo botila
aitak utzitako ondare guztia
jaso nezakeen herentziarik onena
gure aitaren fortuna

8.2. Han goiko ardoa

Bi ardo mota dago soilik bi bakarik munduan
bata oparitzekoa saltzekoa bestea
bi ardo mota ez besterik bi planeta osoan
erraietakoa ez bada zergak kobratzekoa

dirutan sailkatzen ez diren mahats mineral euriak
lur jende gogo bizi amets-geografiak
bihotz bazterren bateko sor-marka dutenak
lau dira horiek biltzeko jatorri izendapenak

irudikatzekoa
poztekoa
maitatzekoa
eta
kontsolatzekoa

mahats-ondoan zimurak kopetan islatzen dira
lau hektarea malbasia eta egoskorkeria
Batistak mahasti ondoan bota zuen aldarria
pobreok badugula ardo ona egiteko eskubidea

8.3. Uda amaierako balada

Laster barrenak erantziko ditu oihanak
laster lapurrak iritsiko dira
laster ez da ezkutalekurik izango
laster eramango dute dena
laster ebakiko dituzte zuraren hatzak
laster beteko dira promesak
laster lokartuko da lurra
laster biderkatuko da bakardadea

Laster uzta bat zaharrago izango gara

Laster galduko da hostoen oroimena
laster hasiko da pertsonen sasoia
laster piztuko da iluntasuna
laster zaugarriago izango gara
laster izoztuko zaizkigu begiak
laster odolustuko dira enborrak
[.....]
laster soilduko zaigu gogoia

Laster uzta bat zaharrago izango gara

Baina gaur ezinezkoa dirudi
baita heriotza-ale mikroskopikoenak ere

eskailburuan

(2024)



9. Aberri txikia da gurea

Aberri txikia da gurea
Bilboko hipermerkatuetako
apal baten hamarrena betetzeko gai ez dena
etiketa
azala eta ontzia
bilgarria
larru eta estalkia
horixe da gure aberria

Aiako sukalderen batean
souvenirrak biltzeko paperean
dastatzeko prest daukate gure aberria
uztarik
gabeko hizkuntza
mintzoric
gabeko eskuak
herririk gabeko mahastiak

Maiz irakurtzen dut gure aberria
mahai-zapietan erakusleihoetan
elastikoetan patrikan poltsetan
kakofonia
errepika-erraza
behin eta berriz
jantzi daitekeena
lelo itsaskorreko aberria

Oso basque
muy euskal
tres basque
very basque

Hemen denak gara turistak
welcome gure aberrira



Testu hauek
Hernanin irakurri
eta entzun ziren
2024ko abenduaren 1ean,
Arrakastaren eskailera
izeneko saioan.



<https://hkl.eus>